


A T Z O K O  
**Andoain**

6. zbk.

1999ko ekainaren 27a.

eta andoaindarrak  
ando  
ainda  
rrak

**Erlijioa (1)**



# JAINKOAREN IZENAN

**E**rlijioa eta elizari buruzko kontuak kontatzen hasi eta ezin isilduta aritu dira mahaiaren bueltan biltzen ditugun gure solaskideak, pasadizo bat bestearen atzetik kontatzen. Izan ere, euren ume eta gazte garaietan erabat erlijioak baldintzatutakoa baitzen bizimodua; eguneroko bizitza elizako kanpaien arabera egiten zen eta bizi-ohiturak ere apaizak esandakoaren arabera zehazten ziren.

Denek azpimarratu digute, oraingo metroarekin neurtuta, ezin dela ulertu mundu hura, sinesgaitza dela erabat. Nolanahi ere, eurentzat huraxe zen norma; egin behar zena, eta bene-benetan sinesten zutena.

## BATAIOA

Izugarrizko garrantzia zuen umea bataiatzeak, eta lehenbailehen bataiatzeak batez ere. Gure solaskideek gogoratu digutenez, umea jaio eta hurrengo egunean hartzen zuten sakramentua ahal zela, eta gehienera jota lau bat egun-edo pasatakoan; izan ere, ume asko hiltzen baitziren orduan eta ahalik eta azkarren eman nahi izaten zitzaaien bedeinkazioa. "Nik badaukat seme bat neguan jaioa", esan du Loren Navarrok, "eta orduan egin zituen ikaragarritzko hotzak eta elurrak. Umea bataiatzera ekarri genunean Don Rosendok ur hotz-hotza suelto bota zion eta ikaragarritzko katarroa hartu zuen ume gaitxoak. Gure senarrak esaten zuen: 'hurrengoa neguan jaiotzen bada udaberrirarte ez dugu bataiatuko'. Eta nik 'ixooo! horrelakorik ez esan!'"

Jakina, bataiatzen ez zituzten umeak linbora joaten baitziren, inork



Joxemari Olazabal

"Egia esan linboari buruzko esplikazio gehiago ez zizkiguten ematen, beraiek ere ez zekitelako..."

non zegoen edo zer zen ez zekien leku beldurgarri hartara. "Ez zen ez zerua, ez infernua; linboa zen hura", esan digu Esther Arrietak zehaztasun gehiago ezin emanda. "Egia esan", jarraitu du Joxemari Olazabalek, "esplikazio gehiago ez zizkiguten ematen, beraiek ere ez zekitelako..."

Azalpenen une honetan gaudela sartu da atetik Joxe sakristaua. Linboaz-eta ari garela esan orduko zehaztu digu, "Jesus! baina linboa kendu zuten aspaldi!"



Joxepa Ormaetxea

"Esaten zuten umea elizara sartu aurretik balkoira ateratzea ere ez zela komeni, eta arropa zabaltzeko, badaezpada ere, mantila buruan jarrita ateratzen ginen"

Umea bataiatu eta handik astebe- te edo aste pare batera izaten zen elizan sartzea: amak umea elizara lehen aldiz sartu eta Jaunari aurkezten zion unea. Batez ere, emakumezkoek dute gogoan nola egun hori iritsi arte

Elizako ohituretan zegoen ongia, bide zuzena, eta horretatik ateratzen zen guztia, bekatua, infernua edo linbo hitz zehazgabe baina beldurgarriekin identifikatzen zuten herritarrek. Pentsa ezazazue, hortik abiatuta, zeinen garrantzia handia zuten sakramentuek, bataiotik hasi eta azken igurtziraino. Bizitzaren mugarri nagusiak ziren horietan, eta horregaitik erabaki dugu zenbaki honetan sakramentuei buruzko gora-beherak gogora ekartzea.

Gauza serioak ziren oso, baina horiekin lotuta makina bat pasadizo eta kontakizun xeblebre ere gertatu izan ziren gure herrian. Gure gizon-emakume koardilakoek, beti bezala, fin-fin eman digute horien guztien berri. Hara:

amek ezin izaten zuten kalera atera. "Esaten zuten ama garbitzeko zela", dio Loren Navarrok. "Esaten zuten balkoira ateratzea ere ez zela komeni, eta arropa zabaltzeko, badaezpada ere, mantila buruan jarrita ateratzen ginen", gaineratu du Joxepa Ormaetxeak.



Umea elizan sartzeko egunean ateratzen zen lehen aldiz ama kalera.

Erlijioa

## KOMUNIO TXIKIA

Zazpi bat urterekin egiten zuten komunio txikia orduko neska-mutikoei. Sakramentu garrantzitsua zen hura baina ez komunio handia bezainbestekoa. Loren Navarrok gogora ekarri duenez, hileko lehen ostirala egun inportantea izaten zen, eta normalean egun horretan izaten ziren komunio txikiak. "Komunioa egin behar genuenak lehenengo aulkietan jartzen ginen, baina arropa normalekin-eta. Neri Don Joaquin Bermejok eman zidan lehenengo jaurtzea".

"Behin jauna hartuz gero, mezetera etortzen ginen igandero", jarraitu du Joxemari Olazabalek kontakizune-



Miguel Amas

*"Eta jauna lurrera eroritzen bazen, buenoo! segituan jasotzen zuen apaizak eta lurra zapi batekin igurtzi"*

an, "baina jauna hartzen genuen hileko lehenengo ostiralean; zazpitako mezan!".

Miguel Amasek zehaztu duenez, "ordurako katekesia ondo ikasita

eduki behar zen" eta, beraz, aurrez, prestaketa zorrotza egiten zuten. "Ni Concha Arretxeren eskolan prestatu nintzen komunio txikirako", esan du jauna ahoan nola sartu behar zen eta ikasi zueneko gogora ekarrita. "Eta a ze beldurra ezin zelako jauna ahoan sartu eta koska egin!", zehaztu dio Maria Esther Arrietak atzetik. "Ezpaineekin ikuitzea ere galarazita zegoen", gaineratu die Joxepa Ormaetxeak ordukoak gogoratuta. "Eta lurrera eroritzen bazen, buenoo! Hura bekatua!. Segituan jasotzen zuen apaizak jauna eta lurra zapi batekin igurtzi", jakinarazi du Miguel Amasek.

## KOMUNIO HANDIA

Hamaika urte betetzen ziren urtean egiten zen komunio handia, komunio inportantea. Urte osoz katekesian ondo prestatzen ziren egun handi horretarako. "Elizaren atzeko atetik, binaka-binaka sartzen ginen iladan aldareraino, han komunioa



Bixente Olan

*"Filan zen haietako batek estandarte txiki bat ematen zuen, zintzilik txintxarriak zituela. Harek egiten zituen arduradun lanak-edo"*

hartzeko", esan du Esther Arrietak. Bixente Olanok gogoan duenez, filan ziren haietako batek "estandarte txiki bat ematen zuen, zintzilik txintxarriak zituela. Harek egiten zituen arduradun lanak-edo".

Komunio txikiaren aldean askoz ere garrantzi handiagoa zuen honek, eta hori gaztetxoek soinean eramaten zituzten jantzietan ere nabaritzen zen: neskek txuriz -'Santaz purisimas', diote - eta mutilak, berriz, traje eta korbataz, "eskuineko besoan izugarritzko lazoa jarrita", Joxemari Olazabalek gogoratu duenez.

Joxe Sakristauaren arabera, traje


haiek lortzea ez zen nolana hiko gauza. Zehaztasun osoz gogoratu du Felipe elektrixista herritarraren pasadizo: "Larunbat iluntzea ailegatu da eta hasi dira etxean trajeari buruz. Halakok eman zizkidak galtzak, halakok txaketa ere bai, eta behintzat preparamu gaituk! baina oraindik zapatak falta zaizkiguk! Amak esan dio ba: 'joan hadi Maindineko etxera eta eskatu zapata batzuk emateko hiri, gero pasako naukela...' Joan da, hartu ditu zapatak eta hurrengo egunean jantzi ditu ahal den bezala zapata berriak. Joan da komunioa egitera eta handik bueltan mutil gizarajoa negarrez etxera. Eta han: 'hara, baina zer pasa zaik?', eta 'min ematen didatela zapatek, min ematen didatela!' 'Baina motel! zapata berriak eta, bada ezpada ere, hiru-lau numero haundiagoak ekartzeko esan nian g a i n e r a hurrengo urterako-eta; min ematen diatela?!' Azkenean zapatak kendu dizkiote ba, eta



Miren Zarraga

*"Elizatik bueltan komunioa hartu genuenak joaten ginen ezagunen etxera, han gurutzearen irudia esku gainean egin eta trukean jasotzen genituen xoxa batzuk erregalu bezala"*

ez zituen ba aldrebes jantziak!". Jakina, garaj hartan alpagatak baino ez zituzten ezagutzen mutikoei eta zapatak jazten ez jakin...



Roke Ansa eta bere urteko komunio handiko taldea. Joxe Angel Agirre da estandarteduna. 1936ko apirilkoa da argazkia.



Roke Ansa

"Komunio handiko egunean gurean behintzat, arkume bat erretzen zen; eta hura gauza handia zen!"

Komunio eguna egun inportantea zen eta denek dute ondo gogoan gordea. Miren Zarragak esan digunez, Etxeberritan bezala gainontzeko auzo guztietan ere, elizatik bueltan komunioa hartu zuten umeak joaten ziren ezagunen etxera; han gurutzearen irudia esku gainean egin eta xoxa batzuk jasotzen zituzten trukean, opari gisa edo: "Etxetan bosna xentimo-edo jaso eta harekin erosten genuen janaria gero bazkaria egiteko..."

"A! eta orduan ez zen banketerik izaten orain bezala e!", ohartarazi digu Joxemari Olazabalek. Etxean



Loren Navarriori komunio handiaren egunean atera zioten argazkia.

biltzen ziren eta etxeok soilik. "Gurasoak, anai-arrebak eta amandre eta aitajuna eta kitto", esan digu

Lorenek. "Egun horretan", gaineratu du Miguel Amasek, "ez zen babarrunik jaten, eguneroko ohi-tura hautsita. Izan ere, 'desde el año 40 al 50', bestela, egunero babarrunak jaten baikenituen etxean!". Komunio handiko egunean zer jaten zen gogoan du Roke Ansa: "Gurean behintzat, arkume bat erretzen zen; eta hura gauza handia zen!" Beste askok, ordea, ez zuten halakorik ezagutu: "Baserrian akaso arkumea bai, baina gainerantzeko etxetan garbantzuak eta oilasko-arekin konformatu behar!", esan du Joxepa Ormaetxeak.

Eliztarren bizitzan -herritar guztien bizitzan, beraz- mugarri inportantea zen komunio handiaren sakramentua, adin horretan igarotzen baitziren herritarrek ume izatetik gazte izatera, eta batez ere eskolatik lanera. "Komunio handia hamaika urteterekin egin eta hamabirekin berriz lanera!", hura zen legea Miguel Amasek azpimarratu duenez.

## SENDOTZA



Maria Esther Arrieta

"Nik bataioa eta sendotza batera hartu omen nituen, egun berean, obispoa hemen gertatu zelako"

Komunio handiaren atzean jarri dugu guk sendotza, baina garai batean ez zen beti hala izaten, ezta gutxiagorik ere. Sendotzaren sakramentua gotzainak ematen zuen eta hura etortzen zenean hartzen zuten guztiek batera, haur, ume edo gazte izan.

"Nik bataioa eta sendotza batera hartu omen nituen, egun berean, obispoa hemen gertatu zelako", jakinarazi digu Maria Esther Arrietak. Hori, jakina, gurasoengandik jakin



Gotzainak 1958 urtean Andoaínaera egin zuen bisita.

zuen berak. "Ni berriz", gaineratu du Mikela Ansa, "hiru edo lau urte nintuenean eraman ninduten Urnietako elizara sendotza hartzera. Ama hangoa nuen eta gotzaina hara joan zenean aprobetxatu omen zuten".

Izan ere, "obispoa etortzen zenean hartzen zuten sakramentua denek. Eta hura noiz edo noiz etortzen zenez, igoyal tokatzen ziren berrehun edo denak batera", kontatu du



Joxemari Olazabal

"Obispoa etortzen zenean hartzen zuten sakramentua denek. Eta hura noiz edo noiz etortzen zenez, igoyal tokatzen ziren berrehun edo"

Joxemari Olazabalek. "Kontutan har ezazu", gaineratu du, "garai hartan obisporik ez zela Donostian, Gasteizen egoten zen Araba, Bizkaia eta Gipuzkorako, hiru probintzitarako bakarra, eta jakina, hura zenbategi etorriko zen ba... bost urtetik behin igoal!"

"Nik gogoan daukat sendotza hartu nuenean koskortuta nengoela", hartu du hitza Miguel Amasek. "Oraindik ere begian bistan dauzkat



**Miguel Amas:**

*"Oraindik ere begian bistan dauzkat obispoa eta haren eskubitara alkatea eta ezkerrean apaiza. Denak filan jarri obispoaren aurretik pasa, matraileko bat hartu eta fuera!"*

obispoa eta haren eskubitara alkatea eta ezkerrean apaiza. Orduan La Salle eskolako ikasle guztiek hartu genuen sendotza eta joan ginen eskolatik elizara, txukun-txukun, iladan. Denak filan jarri obispoaren aurretik pasa, matraileko bat hartu eta fuera!". 'Obispo de Roma para que te acuerdes toma!' esaten zen esaldi hura den-denek gogoratzen dute gozainak buruan klaska! ematen zuen une hura gogoratzeko.

## EZKONTZA

...Eta ezkontza gero, hura bai egun haundia. Garai haietan, orain ez bezala, ez zegoen seme-alabak etxetik ezkondu gabe joan zitezkeela pentsatzerik ere, eta beraz, bikote asko zain-zain egoten ziren eztaiak noiz egin, gurasoen etxetik joan, eta, batez ere, senar edo emaztearekin goxo-goxo egoteko.

"Bodak izaten ziren igoal goizeko seiretan. Joxe sakristaua eta ni monagilo izandu naiz urte askoan eta ezkontza asko lagundu ditut. Bezperan esaten zigun erretoreak 'bihar boda diagu eta prestatu egin behar gaituk', eta hala antolatzen genituen. Bikoteak bedeinkatzen ziren, noiznahi: goizeko seiretan, zazpiretan edo zortziretan...", kontatu digu Joxemari Olazabalek.

Baina ezkontzarako prestaketak dexentez lehenagotik hasten ziren. Aukeraturako eguna baino hiru igande lehenago apaizak pulpitutik proklamak irakurtzen zituen: "Halakok eta halakok, bat Errezilen jaio eta bertan bizi denak, eta bestea



**Joxemari Olazabal:**

*"Ezkondu egiten zen sakristian. Behin bedeinkazioa hartuta, ateratzen ziren bertatik apaizaren alde batera ezkondu tako andrea, eta bestera, senarra jarrita. Prozesio txiki batean, joaten ziren aldareraino eta han meza hasten zen"*



Bikoteari zapi zuria jartzen zioten ezkontzetan; senargaiari lepotik behera eta emakumeari burua estaliz, haren menpekotasuna adierazteko.

Andoainen jaio eta bertan bizi denak, ezkontzeko erabakia hartu dute. Inork eragozpenik baldin badu...", kontatu digu Joxemari orduan apaizak ozen irakurtzen zituenak gogora ekarrita.

Eta eragozpenak batek baino gehiagok jarri omen zituen herrian. Joxe Sakristauak badu gogoan kasu bat baino gehiago. "Izan zen bikote bat aspalditik ezkontzeko preparazioan aritu zena, baina amak nahi ez eta eragozpenak jarri zituen", esan du. Nolanahi ere, gogoratu dute denek ama batek ezin zezakeela eragotzi ezkontza bat, hura ezkonkideek libre hartzen zuten erabakia zela. "Eragozpena izaten zen, igoal, ba bikotekide batek beste batekin ume bat izatea eta horrela", zehaztu du Maria Esther Arrietak.



**Loren Navarro**

*"Klaro, garai hartan ezkontzak latinez bedeinkatzen zituen apaizak eta igoal senarrak ulertuko ez zuela-eta misala eman nion. han jartzen baitzuen argi eta garbi 'compañera te doy y no esclava'"*

Proklaman tramitazioa gainditu ondoren iristen zen ezkontzako egun handia. "Ezkondu egiten zen sakristian", esan du Joxemari Olazabalek. "Behin bedeinkazioa hartuta, ateratzen ziren bertatik apaizaren alde

batera ezkondutako andrea, eta bestera, senarra jarrita: hiruak eskutik loturik. Prozesio txiki batean, joaten ziren aldareraino eta han meza hasten zen. Hori 1940 arte behintzat hala izaten zen; gero hasi ziren ezkontzak aldarean egiten".

"Gu Larraitzen ezkondu ginen", esan du Loren Navarrok. "Klaro, garai hartan ezkontzak latinez bedeinkatzen zituen apaizak eta igoal senarrak ulertuko ez zuela eta misala eman nion, han jartzen baitzuen argi eta garbi 'compañera te doy y no esclava'".

"Bai hori bukaera zen baina hori baino lehenago nahi zituen guztiak esaten zituen apaizak e!", gaineratu dio Joxe Sakristauak. "No saldréis de casa sin la necesidad obligada, y entonces, con el permiso del marido"; 'entzun ezazu andre: zu gauza guztietan egongo zara senarraren menpe', horiek denak ere esaten zituen apaizak".



Joxe Eizmendi:

"Bai hori bukaera zen baina hori baino lehenago nahi zituen guztiak esaten zituen apaizak e!. 'No saldréis de casa sin la necesidad obligada, y entonces, con el permiso del marido'; 'entzun ezazu andre: zu gauza guztietan egongo zara senarraren menpe' "

"Ezkontzatik bertan hasita oso menpean egoten zen orduan emakumea", gaineratu du Joxepa Ormaetxeak. "Bai, elizan bai, baina emakumeak bigotearekin senarra ederki menpean edukitzen zutenak ere baziren garai hartan e!", zehaztu nahi izan du atzetik Miguel Amasek. "Bai jauna!", gaineratu dio sakristauak "bai orduan eta bai orain: gaur egungo etxeen %95etan andreak agintzen dik etxean, gure etxetik bertatik hasita!".



Pello Ugalde eta Anttoni Orradreren (Martin Ugaldereen gurasoak) ezkontza eguna.

Eztabaidak eztabaida, ordea, argi dago elizaren aurrean behintzat senarrak zuela nagusitasuna emaztearen aldean. Horren erakusgarri da, baita ere, senar-emazteek, biak estaliz, ezkontzako unean jartzen zuten zapi zuria. Senarrak bizkarretik behera, burua bistan zuela; eta emazteak, berriz, burua estalita, menpekotasun hori adierazteko.

Emakumeek ohitura zuten beltzez jantzita joatea ezkontzara. Ez lutoak hala agintzen zuelako, soineko beltzaren ohitura zegoelako baizik. "Ni behintzat beltzez ezkondu nintzen; soineko luze eta polita zen baina beltza", esan du Loren Navarrok, emaztegaiak zuriz janzen geroxeago hasi zirela gaineratu aurretik. Gizonezkoek, berriz, traje eta korbata berria estreinatzen zituzten euren ezkontza egunean.

Eta ezkondu ondoren, banketea; ezkontzetan bai. Dena den, Miguel Amasek zehaztu nahi izan du bazirela baita ere bazkaria etxean egiten zutenak. "Izan ere, gure arrebak etxean egin zuen. Ni nintzen laugarrena eta nik bakarrik egin nuen banketea kanpoan". Eta Andoainen non egiten ziren ezkontza-bazkariak? ba, gehien-gehienak Inaxionean. "Guk, berriz,", esan du Mikela Ansa, "Amasako Aranzabin egin genuen bazkaria, elegante. Bi ahizpa batera ezkondu ginen eta hantxe ospatu genuen".

"A! eta beste kontu bat", jarraitu du Miguelek: "Nere arrega zaharrena joan zen elizara oinez; bigarrena automobilean; eta ni, berriz, automo-

bila iristen ez zela-eta, aitarekin, mano a mano, tipi-tapa elizara".

"Automobilean joatea? orduan lujo handia zen hori", dio Joxe Sakristauak; eta kantuan hasi da gero:

"Egun zoragarria ezkontzen danean ezkonduzera joango gara automobilean, a, a, a...!"

Autoa egiten zen alkilatua, taxia gehienetan. Joxe Sakristauak, denetarik egin duenez, horretan ere ibili da behin baino gehiagotan: "Taxista nintzela ekarri ditut, bai, makina bat bikote elizara".

"Ni Prontxio taxistarekin etorri nintzen", esan du Joxemarik. "Lehendabizi ni eta ama hartu gintuen elizara ekartzeko. Gero, Ireneren etxera joan eta han bera eta aitajauna hartu, eta buelta! Taxi berarekin bi buelta".



Mikela Ansa"

"Andoainen gehien-gehienek Inaxionean egiten zuten banketea. Guk, berriz, Amasako Aranzabin egin genuen bazkaria, elegante. Bi ahizpa batera ezkondu ginen eta hantxe ospatu genuen"

## AZKEN IGURTZIA

Gure solaskideek azaldu dutenez, orain, nahi denean hartzen dute helduek azken igurtzia, heriotza heltzen den unerako prest egoteko. Baina garai batean, azken-azken unerarte itxaroten zen sakramentu hori hartzeko, heriotzaren atariraino justu. Miguel Amasen arabera, sakramentuaren izenaren aldaketa ere bilakara horren seinale da: "Lehen, extrema unción deitzen zitzaion, eta orain, berriz, gaisoen edo zaharren igurtzia".



Joxe Eizmendi

"Elizatik ateratzen ginen monagiloak farola banarekin eta kanpaitxoak joka, eta atzean apaiza. Eta kalean pasatzerakoan ikusten gintuzten guztiak belaunikatu egiten ziren eta gurutze santua egiten zuten; inor ez zen belaunikatu gabe geratzen"



Don Rosendo apaizaren hiletetako segizioa.

Gaur egunetik iraganera joanda, baina, sakramentu horren izaera ezezik haren inguruan izaten zen prestaketa guztia ere izugarri aldatu da. Joxe Sakristauak gogora ekarri duenez, orain hainbeste urte ez dela, azken igurtzia ematera joaten ziren apaizak eta monagiloak prozesioan hiltzorian zegoenaren etxera. "Elizatik ateratzen ginen monagiloak farola banarekin eta kanpaitxoak joka, eta atzean apaiza. Eta kalean pasatzerakoan ikusten gintuzten guztiak belaunikatu egiten ziren eta gurutze santua egiten zuten; inor ez zen belaunikatu gabe geratzen".

"Nere amak kontatzen zuen", esan du Loren Navarrok, "behin apaiza Kontrabistora azken igurtzia ematera zihola nola egokitu zen Donostiara zetorren erreginaren karroa Zumea kalean; eta bera ere karrotik jeitsi zela, belaunikatu eta Kontrabistoraino lagundu omen zuela prozesioa". Maria Esther Arrietak gaineratu dienez, Maria Cristina erregina omen zen hura.

Pasadizo horrek argi



Loren Navarro

"Behin apaiza Kontrabistora azken igurtzia ematera zihola nola egokitu zen Donostiara zetorren erreginaren karroa Zumea kalean; eta bera ere karrotik jeitsi zela, belaunikatu eta Kontrabistoraino lagundu omen zuela prozesioa"

erakusten du segizio horrek zuen garrantzia. "Garrantzi handia zuen bai, eta zitzaion sekulako errespetua", esan du sakristauak. "Eta ez pentsa e, garrantzia handiagoa zuen une horretan apaizaren bisitak medikuarenak baino. Gertatu gara gu askotan azken igurtzia ematera joan eta medikua guk bukatu arte han zain; medikuak berak apaizari uzten baitzion lekua".

"Gogoratzen naiz behin baino gehiagotan", jarraitu du, "Santakruzetan Etxeberrieta alderaedo joatea tokatu eta nola topatu genuen banda jotzen eta jendea dantzan Zumean. Baina segizioa bazetorrela konturatu orduko derrepente geratzen zuten musika, denak belaunikatu, apaiza pasa, eta gure atzetik jarrita banda martxa funebrean jotzen hasten zen".



Aintzina-aintzinako hileta bat San Martinen.

# ... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

**E**rljio bizitzari buruzkoak ezin izan ditugu ba zenbaki bakarrean bildu. Askotan esan dugu gure kuadrila honetakoek hari luzea dutela, eta gai honexekin behintzat ondo erakutsi digute hori. Hala bada, oraingo honetan sakramentuei buruzkoak kontatzea erabaki dugu eta gainontzekoak hurrengorako uztea.

Jarraipen zenbakia izango da, beraz, uztaileko azken igandean egunkariak saltzen dituzten lekuetan jaso ahal izango duzuna: Aurkituko dituzu, mezari buruzko kontakizunak, prozesioei buruzkoak, eta, jakina, bekatua eta konfesioari buruzko pasadixo xelebreak ere bai. A! eta kontu egizu denboraldi honetako azken zenbakia izango dela hurrengoa, abuztuko oporrekin batera deskantsuxoa hartuko baitugu irailertarte. Ez ezazu galdu beraz.

## Zuk ere bildu nahi al duzu gurekin?

Andoaindarra bazara, aspaldiko kontuei buruz jardutea gustoko baduzu eta hiztuna bazara estimatuko dugu zure konpainia. Hilean behin biltzen gara kontu-kontari aritzeko. Proposamenak tentatzen bazaitu, deitu 300732 telefonora eta jarri gurekin harremanetan, ados?



Manuel Larramendi  
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko  
Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

**Argitaratzaileak:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren ekimen eta dirulaguntzaz. **Zuzendaritza eta erredakzioa:** Jone Larrañaga. **Maketazioa:** Eva Garcia. **Argazkiak:** Udal artxiboa, Markotegi-Otxoa sendia eta Manu Mujika. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.